

TRANTSIZIO ALDIRAKO FEDERAZIOAREN PROGRAMA

Azken urteotan, gure federazioaren barneko egoera nahiko gatazkatsua izan da, eta EMFren Zuzendaritza Batzordearen eta lurralde federazioen arteko harremanei eragin die tentsio horrek; gainera, nahasmendu hori federazioen batzarretara ere zabaldu da. Maila pertsonalera ere iritsi dira desadostasunak, eta epailearen aurrean salaketak jarri dira. Liskarrek zentsura mozio bat ekarri dute gero, eta, gauzak konpondu beharrean, zailtasunak areagotu ditu horrek. Hasteko, 2012. urtean bi hauteskunde prozesu egitera behartu gaitu. Zentsura mozioaren ondorio ezkorrak saihestuko zituen akordio bat egitea izango zen egokiena, eta, hori lortzeko, nahikoa zen Zuzendaritza Batzordeak berritzeko prozesuari ahalik eta azkarren ekitea 2012an. Negoziazioak porrot egin du, ezinezkoa izan da arrazoizko akordio batera iristea, eta zentsura mozioa onartu egin da; horren guztiaren ondorioz, 2012ko urtarrilaren 21ean, EMFren behin-behineko Zuzendaritza Batzordea aukeratu beharra izango da.

Jakinik hauteskundeetara soilik zentsura mozioa sustatu duen hautagaitza aurkeztuz gero ondoezak eta nahasmenduak bere horretan jarraituko dutela, aurreko auzi horretatik kanpo dagoen federatu talde batek hautagaitza alternatibo bat osatu nahi izan dugu, beste edozer iritziren aurretik federazioaren interesak jartzeko gai izango den hautagaitza bat. Trantsizio aldi horretarako EMFren Zuzendaritza Batzordearen zereginak betetzeko batzarreko kide gehienek babesa lortzen badugu, oinarrizko bost konpromiso hauek hartuko ditugu, halaber federazioaren bizitza normalizatzeraz eta berritzera zuzentzen diren bost konpromiso hauek:

1) Federazioak bere jarduerak gauzatu dituela bermatzea, informazioaren eta kudeaketaren ikuspegitik gardentasun osoz jokatzuz, lurralde federazioekin lankidetzan aritzeko harreman sendoak finkatzuz, batzarraren erabakiak errespetatuz eta onartuz, federatuen eta klubaren esku egonez uneoro, horien beharrei erantzunez eta horien ekimenak babestuz.

2) Batzar Orokorreko kideen artean kontrol batzorde bat eratzeko modua sustatzea, kirol administrazioak horretarako baimena ematen badu. Batzorde horretan estamentu guztiek izango dute ordezkartza, eta, besteak beste, funtzio hauek izango ditu: jarduera ofizialen egutegia edo programak gainbegiratzea, batzarrerako txostenak egitea, aurrekontuak onartu eta arauak eta araudiak aldatu aurretik, eta kirol kudeaketaren jarraipenaz eta aurrekontuaren likidazioaz arduratzea.

3) Zuzendaritza Batzorde bakoitzaren agintaldia amaitzean, estatutuetan kanpoko ikuskaritza bat egin beharra txertatzeko proposamena egitea EMFko batzarrari. Lurralde federazioen ardurapean uzten dugu proposamen hau bere egitea.

4) Behin betiko hauteskunde prozesua ahalik eta azkarren hastea, EMFren behin-behineko Zuzendaritza Batzordearen behin-behinekotasun aldia ahalik eta gehien laburtzeko. Prozesu hori lurralde federazioekin ados jarrita, araudi ofizialari jarraituz eta EMFren Estatutuaren aurrekusten diren epeak betez gauzatu behar da.

5) Arauzkoa den lau urteko aldirako (2012/2016) aukeratzen den Zuzendaritza Batzordeari txanda ematea, egoera normal batean eta mendi elkarte eta taldeen, kirolarien eta kirol erakundeen konfiantza, errespetua eta begirunea berreskuratuta.

Hauteskundeetarako zerrenda honetako kideok gogotsu parte hartzen dugu gure elkarte eta klubaren zereginetan, eta gaitasun osoa dugu federazioaren zereginak garatzeko. EMFren batzarrak Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendu egoki eta zuzena kudeatzeko zeregina gure esku uzten badu, arduraz eta ilusioz hartuko dugu gure gain zeregin hori, federazioko estamentu guztien babesa izango dugun esperantzaz, guztion artean ahaleginduz Euskal Mendizale Federazioaren izena ona berreskuratuko dugulakoan. Horregatik, klub eta elkarteetako ordezkariak, mendizaleak, teknikariak eta epaileak, guztiak urtarrilaren 21ean, larunbatean, Elgetara joatera animatu nahi ditugu, hauteskunde programez beren iritzia osa dezaten, debatean parte har dezaten eta EMF berriro inoiz galdu behar ez zuen bidera eramateko gaitasun handiena duen hautagaitza, beren iritziz bidezkoena dena, babes dezaten.

Roberto Agirre
EMFko Presidentziarako hautagaia